



UNIBASQ EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAREN KALITATE AGENTZIAREN GOBERNU KONTSEILUAREN 2014ko AZAROAREN 17ko BILERAREN AKTA

BERTARATUTAKOAK:

Gobernu Kontseiluko kideak:

Cristina Uriarte andrea,
lehendakaria
Itziar Alkorta andrea,
lehendakariordea
Juan Andrés Legarreta jauna,
Agentziaren zuzendaria
Iñaki Goirizelaia jauna, UPV/EHUko
errektorea
Iosu Zabala jauna, Mondragon
Unibertsitateko errektorea
Óscar Altuzarra jauna
Aratz Castro jauna
María Paz Espinosa andrea
Carmen González Murua andrea
Guy Haug jauna
Ana Martínez andrea
Gregorio Monreal jauna

BERTARATUTAKO BESTE
BATZUK:

José Manuel Valle jauna

EZIN ETORRIA ADIERAZI
DUTENAK:

José María Guibert jauna,
Deustuko Unibertsitateko
errektorea
Esther Giménez-Salinas andrea

Eusko Jaurlaritzaren Bilboko Lurralde Ordezkaritzaren A aretoan (Kale Nagusia 85), 2014ko azaroaren 17ko 15:30ean bildu da UNIBASQ Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren Gobernu Kontseilua, Cristina Uriarte andrea buru dela. Alboan adierazitako jaun-andreak bertaratu dira, honako gai-zerrenda honekin:

1. 2014ko irailaren 26ko aurreko bilkuraren akta irakurtzea, eta, hala badagokio, onartzea.
2. Lehendakariaren txostena.
3. Zuzendariaren txostena.
4. Aholku Batzordearen berritze partziala. Txosten juridikoa eta kideen berritzea.
5. 2011-2014 aldiko ebaluazio-irizpideen funtzionamenduaren inguruko txostena eta irakasleen egiaztapenaren emaitzen joerak.
6. Ikerketa-osagarrien deialdia UPV/EHUko 2014ko irakasle kontratatuentzat.
7. Galde-eskeak.

1. PUNTUA. 2014-09-26ko aurreko bilkuraren akta irakurtzea, eta, hala badagokio, onartzea.

Aurreko bilkuraren akta onartu da.

2. PUNTUA. Lehendakariaren txostena.

Cristina Uriarte andreak Agentziaren jardueraren garapenerako garrantzizkoak diren zenbait gairen berri eman dio Kontseiluari.

Lehendakariak Agentziako zuzendaria eta zuzendariarekin elkarlanean aritu diren pertsonak zoriondu ditu “Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea: nazioartekotzearen ikuspegia” Unibasq Sinposioaren antolaketa bikaina izan zelako eta Sinposioak arrakasta handia izan zuelako (Bilboko Euskalduna Jauregian egin zen urriaren 23an).

3. PUNTUA. Zuzendari jaunaren txostena.

Juan Andrés Legarreta jaunak Agentziaren jarduera garatzeko garrantzitsuak diren zenbait gairen berri eman du.

4. PUNTUA. Aholku Batzordearen berritze partziala. Txosten juridikoa eta kideen berritzea

Aholku Batzordeko kideen gehieneko agintaldiaren inguruan aurkeztutako txosten juridikoa kontuan hartuta, Kontseiluak proposatu du Néstor Torres jaunak eta Perla Cohen andreak kargua uztea. Bestalde, Paz Francés andrea ere ordeztu behar da.

Aratz Castro jauna puntu horretan abstenitu egin da.

Kontseiluak erabaki du Néstor Torres jaunari, Perla Cohen andreari eta Paz Francés andreari eskerrak ematea emandako zerbitzuengatik.

Kontseiluak aho batez proposatu du Cesar Arrese-Igor jauna, Aurelie Arcocha-Scarcia andrea eta Gemma Espigares Tribó andrea izendatzea Aholku Batzordearen kide.

5. PUNTUA. 2011-2014 aldiko ebaluazio-irizpideen funtzionamenduaren inguruko txostena eta irakasleen egiaztapenaren emaitzen joerak.

Agentziak 2011-2014 aldiko ebaluazio-irizpideen funtzionamenduaren inguruan eta irakasleen egiaztapenaren emaitzen joeren inguruan egin duen txostena aurkeztu du Juan Andrés Legarreta jaunak.

Cristina Uriarte andreak Kontseiluaren izenean aurkeztutako txostena eskertu du.

6. PUNTUA. Ikerketa-osagarrien deialdia UPV/EHUko 2014ko irakasle kontratatuentzat.

Aho batez onartu da UPV/EHUko 2014ko irakasle kontratatuentzat ikerketa-osagarrien deialdia egitea.

7. PUNTUA. Galde-eskeak

Ez dago galde-eskerik.

Cristina Uriarte andreak eskerrak eman dizkie kontseilariei bertaratzeagatik eta eskaini duten laguntzarengatik.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, bilera amaitutzat eman da 17:40an.